

## **1.- SARRERA: interpretazio-lanaren sorburua eta garapen historikoa**

Azken mendean lan handia egin da hizkuntza-eskubideen arloan. Horren adierazgarri garbia dugu arlo administratibo eta arlo juridikoan egin den interpretazioaren lan handia. Hala ere, bidea ez da erabat amaitu, izan ere, betiko harriarekin egiten dugu topo oraingo honetan ere. Hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala, alde batetik, euskara hizkuntza gisa normalizatuta ez egoteak arazoak dakartza interpretazioa egiteko orduan Euskal Herri mailan eta beste aldetik, hizkuntza gutxiak bigarren plano batean gelditzen dira, hizkuntza ofizialen menpe, Europar Batasunaren testuinguruan. Baina lanaren mamian sartu aurretik, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ikuspegi orokor bat izan dezagun, interpretazioa zer den definitzea, bere sorrera zein den ezagutzea baita zein interpretazio mota dauden jakitea ere.

### **1.1.- Interpretazioaren kontzeptua. Interpretazioaren eta itzulpenaren arteko ezberdintasunak.**

Lehenik eta behin, interpretazioaren nondik norakoan sakondu aurretik, ezinbestean interpretazioaren kontzeptu bera zehaztu edota definitu beharrean aurkitzen gara. Hau egin ostean, itzulpengintzarekin dituen ezberdintasunak azpimarratuko ditugu, nahitaez bereizi behar ditugun bi kontzeptu ezberdin baitira.

Interpretazioa jatorrizko ahozko jarduna une berberean hizkuntza ezberdinean ahoz adieraztean datza edota jatorriz idatzizko formatuan dagoen testu bat aldi berean ahoz ematean. Beraz, modu argian ondorioztatu daitekeen moduan, interpretazio kontzeptuaren ezaugarri nagusienak ahozkotasuna eta bat-batekotasuna dira. Honela, interpretazioa gauzatzerako unean, interpreteak une berean eskuratu duen testu bat edota ahozko jardun bat berehala itzuli beharko du ahoz hizkuntza batetik bestera.

Nahiz eta jatorri bera dutena baieztatu genezakeen, garrantzitsua da interpretazioa eta itzulpena bereiztea. Itzulpenean, interpretazioan ez bezala, jatorriz testu idatzi bat izango du itzultzaileak, zeina, berriz ere idatziz, beste hizkuntza batera itzuli beharko duen. Honela, aurrez adierazi dugun lez, interpretazioan ahozkotasuna eta bat-batekotasuna nagusitzen diren moduan, itzulpengintzan guztiz aurkakoa jazoko da: emaitza idatzizko testu bat izango da eta denbora luzeagoak izango dituzte itzulpen horiek egiteko.

Interpretazioa eta itzulpenaren arteko ezberdintasuna modu argian azaldu daiteke bakoitzaren adibide bat ipiniz gero. Esaterako, politikari batek Nazio Batuen Erakundearen (NBE) ematen duen hitzaldi bat une berean ahoz itzuliko zaie bertan dauden gainontzekoei; berau interprete baten lana izango da. Bestalde, itzultzaileak gazteleraz argitara eman den liburu bat hartu eta euskarara itzuliko luke, horretarako behar duen denbora guztia hartuz.

Bestalde, besteak beste, honako puntu hauek azpimarratu genitzake interpretazioaren eta itzulpenaren ezberdintasun praktikoaren inguruan:

- Testu bat idazten dugunean esaldi luzeagoak egin ohi ditugu, baita lexiko garatuagoak edota esaldi menpekoak dituztenak ere. Ahoz hitz egiten dugunean, aldiz, esaldi laburragoak erazten ditugu, helburua besteak une berean ulertzea baita.
- Itzulpena egiterako unean, itzultzaileak beste lankideen eta interneten laguntza izan du, baina interpretea *bakarrik* dagoela esan ohi da, ez baitio denborarik ematen edonolako kontsultak gauzatzeko.
- Itzulpena gauzatzeko unean normalean hartzailea nor izango den ez dugu jakingo, interpretatzeko unean, ordea, bai.
- Itzulpenak oso zehatza izan behar du, baina interpretatzeko unean posible da hitz konkretuaren ordeztu sinonimo edota maileguren erabilera gauzatzeko.
- Interpretatzearentzat formaltasuna ezinbesteko ukanbeharra da, interpretatzeko unean urduri egoteak sinesgarritasuna kentzen baitio bere itzulpenari.

## 1.2.- Interpretazioaren historia

Interpretazioaren inguruan jorratu nahi ditugun funtsezko gaietan sartu aurretik, ezinbestekoa iruditzen zaigu interpretazioa noiz eta zein baldintzetan sortu zen gogoratzea. Horretarako hainbat une konkretu azpimarratuko ditugu.

Lehenengoa, **lehen mundu gerra** da. Garrantzitsua da azpimarratzea lehen mundu gerran jada aginduak hizkuntza ezberdinetan eman behar zituztela. Are garrantzitsuagoa oraindik, gerra bukatuta, nazioarteko erakundeak sortzen hasi zirela, lehenengoa OIT izan zen. Erakundeak sortu bezain laster hasiko dira esan osteko interpretazioa erabiltzen. Baina esan osteko interpretazioak asko luzatuko dituelako eztabaidak, prozesua arinduko zukeen sistema baten bila hasi eta aurkituko dute. Hala ere, bigarren mundu gerra hasi eta lortutakoa bertan behera geldituko da.

Bigarrenengoa, **Nurembergeko epaiketa** da. Hasiera batean, lau hizkuntza erabili ziren epaiketan, baina kaos bat zelako, interpretaziora jo zuten, hain zuzen ere esan osteko interpretaziora: hizkuntza bakoitzeko hiru interprete egiten zuten lan eta gainera, beste interpretarien talde bat zegoen testuak jasotzeko. Datu esanguratsu gisa adierazi, errusiarrak izan ziren interpretari hoberenak epaiketa honetan.

Hirugarrenengoa, **Nazio Batuen Erakundearen** eraketa da. Erakunde honetan hasi ziren lehen aldiz bereko interpretazioa erabiltzen. Gainera, lehen unibertsitatea baita interpretazio ikasketak sortu ziren ere. Adierazgarria da Espainia izan zela azken estatua ikasketak hauek sortzen, Portugalen atzetik.

Laugarrenkoa, **martxoaren 11ko epaiketa** da. Epaiketa honetan aldi bereko interpretazioa erabili zen.

Bosgarrenkoa, **interpretazioaren erabilera Euskal Herrian**. Esan dezakegu 1992 inguru izan zela interpretazioaren loraldia Euskal Herrian. Horretaz gain, gaur egungo denboretan, interpretazio asko egiten da Euskal Herrian.

## 2.- Interpretazio-lanaren berezitasunak

### 2.1.- Interpretazio motak

Kontutan izanda interpretazioa jatorrizko ahozko jardun bat aldi berean ahoz ematea edo idatzizko testu bat aldi berean ahoz ematea dela, interesgarria da egungo testuinguruan zein interpretazio mota erabiltzen diren jorratzea. Lau mota bereizi ditzakegu:

- 1) **Aldi berekoa** *-simultánea* gaztelaniaz-. Hizlariak hitz egin eta aldi berean egiten du itzulpena interpretariak, alegia, hizlariak mikrofonoz hitz egiten duen bitartean interpretaria kabina batean dago esaten duena aldi berean itzultzeko.

Interpretazio mota hau Batzarretan erabiltzen da: Eusko Jaurlaritzan, Batzar Nagusietan, Udal handietan baita hainbat txikietan ere, etab.

- 2) **Esan ostekoa**. Hizlariak hitz egiten duen bitartean interpretariak ez du itzulpena egiten aldi berekoan gertatzen den bezala, baizik eta interpretariak oharrak jasotzen ditu hizlaria isiltzen denean itzulpena egin ahal izateko. Gutxi gorabehera 10-12 minutu dauzkate interpretariak itzulpena egiteko.

Kontutan izanda hizlariak esaten duen guztia ezin daitekeela hitz egiten duen aldi berean hartu, interpretariak, mezua ahalik eta zehaztasun gehienarekin hartzeko, siglak, laburdurak eta antzeko figurak erabiltzen dituzte. Azken finean, teknika eraginkor bat da hitz oso bat idazten galtzen dugun denborari probetxu gehiago ateratzeko.

Esan osteko itzulpena da hain zuzen ere Euskal Autonomi Elkarteko auzitegi eta epaitegietan gehien erabiltzen dena.

- 3) **Xuxurlatua**. Interpretazio mota honi heltzen bazaio, interpretariak gain beste pertsona bat edo bi behar izaten dira. Era honetan, interpretea pertsona horren edo horien ondoan jartzen da eta oso baxu hitz egin behar dio edo die belarrira.

- 4) **Osteko aldi berekoa.** Hizlariak esandakoa grabatu eta ondoren grabatutakoa entzuten du interpreteak. Gaur egun badira hainbat unibertsitateko fakultate azken modalitate hau erabiltzen dutenak.

## 2.2.- Interpretazioaren jarraibideak: ulermena, oroimena eta mezua ematea

Aldi bereko interpretazioa izan ezik gainontzeko interpretazio erak erabiltzen direnean, lehendabizi mezua ulertu, ondoren hura gogoratu, eta azkenik, mezua bera era koherente eta ulergarrian eman behar da.

Aipatutako bideari jarraiki, has gaitezen ulermenarekin. **Ulermenari** dagokionez, bi motatako arazoak azpimarratu daitezke:

- 1) **Hizkuntza arrunta ulertzeari buruzko arazoak.** Askotan gertatu daiteke interpretaria eskatu duen hizlaria eta interpretaria euskalki ezberdinekoak izatea, esate baterako, hizlaria Gipuzkoako kostaldeko arrantzalea izatea eta interpretaria, berriz, bizkaieradun alfabetatua. Egoera horrek elkar ulertzeko arazoak sor ditzake, esate baterako, *bizilaguna* hitza bizkaieradun euskaldun batek "compañero/ a" itzuliko luke, hizlariak esan nahi zuena gaztelerazko "vecino" hitzetik hurbilago dagoen bitartean. Beraz, kasu honetan komenigarriagoa izango litzateke hizlariaren euskalkia ezagutzen duen interpretariak jardutea. Kontutan izan behar da ez dela lortu ezin daitekeen gauza bat, izan ere, alde batetik, epaileak, BJLO-ren arabera, hizkuntza ezagutzen duen edonor aukeratu dezake interpretari izateko, eta beste aldetik, interpretaria bidaltzen duen erakundeak, kontutan izan beharreko xehetasuna da hau.
- 2) **Arlo juridikoko hizkuntzaren ezagupenak dakarren arazoa.** Ezinbesteko betekizuna da hizkuntza juridikoa jakitea hura erabiltzen den tokietan jardun behar denean: auzitegi edo epaitegien antolakuntza ulertzea; prozesua zer den baita prozesu motak eta horien aldiak ere ezagutzea; ahozotasuna zein prozesutan erabiltzen den gehiago jakitea; lege arloko hizkuntza bereziko terminologiaren berri izatea; arazo zehatzaren nondik norakoa menderatzea, eta abar.

Euskara ez bada ere arlo juridikoan normalizatuta dagoen hizkuntza, berebiziko garrantzia dauka gaztelaniazko hizkuntza traketsa eta bihurria ulertzea interpretazioa egin ahal izateko. Era horretan, auzitegietan arituko den interpretariak, edozein interpretarik beharko dituen ezagupenez gain, arlo horretako ezagupenak beharko ditu.

Interpretariak hizlariak dioena ulertzeaz gain, **gogoratu** egin beharko du. Auzitegi eta epaitegietan lan egiteak berezitasunak ematen dizkio oroitu beharreko mezuari: datak, zenbakizko datuak, zerrenda luzeak, tokien izenak, pertsonaien izenak, pertsonaien arteko harreman nahasiak, horien kontrako bertsioak, eta abar. Beraz, informazio guzti hori jasotzeko, aurretik adierazi bezala, berebiziko garrantzia dauka interpretarientzat notak hartzeko teknikak ikasi eta horiek egoki erabiltzea.

Bukatzeko, interpretariak hizlariak dioena ulertu eta gogoratu ondoren, **mezua**, alegia, interpretazioa eskaini beharko du. Ezinbestekoa izango da mezua era koherente eta ulergarrian ematea. Hala ere, arlo juridikoan gaztelaniaren eta euskararen egoeren arteko ezberdintasunek mezuaren argitasuna kolokan jarri dezakete sarritan. Izan ere, gaztelerazko hizkuntza juridikoa normalizatuta dagoen bitartean, euskarazko hizkuntza juridikoaren normalizazio prozesua martxan dago. Are gehiago, gaztelerazko hizkuntza juridikoak tradizioa dauka eta hiztegi berezi finkatua dauka. Berriz, euskararekin ez da horrelakorik gertatzen, tradizioz izan ez ezik, dokumentuen ereduak, hiztegiak, lege testuak eta gaztelerazko lege testuen itzulpenak orain dela gutxi hasi dira egiten.

Egoera honetan, interpretariak ez du ia euskarazko erreferentziarik. Gainera, euskarazko lege-hizkuntza xumea ezagututa ere, alferrik zaio askotan hura erabiltzea, izan ere, gerta daiteke euskaldun alfabetatu gabe batek euskaraz ulertzeko gaitasun nahikorik ez edukitzea. Beraz, gaztelaniaz azaldutako mezua euskaraz emateko orduan, itzulpena egin ez ezik, mezua jaso behar duenak ulertzeko moduan egokitu behar da.

### **2.3.- Zehaztasun beharra nahitaezko ukanbehar gisa**

Interpretazio eta itzulpengintzari dagokienez, ezinbestekoa da erabiltzen den esamoldea nahiz lexikoa ahal bezain zehatzenak izatea. Izan ere, esaldi bat modu batera edota bestera itzuliz gero, bere esanahia edota tonua erro errotik eraldatu dezake interpreteak. Ulertzen da interpreteak ahal duen zehaztasun handienarekin itzuli behar duela nahitaez, bera bitartekari huts baten moduan kontsideratzen baita. Honela, interpretea bitartekari bat soilik izango da, igorleak adieraziriko mezua hartzaileari modu ulergarrian iristeko bide bat soilik baita.

Zehaztasun beharraren garrantzia arlo juridiko-administratiboan azpimarratzen da modu nabarian. Epaitegi batean lekuko batek bere testigantza atzerriko hizkuntza batean eman behar badu, interprete bat ipiniko zaio adierazten duena epaile eta alderdien abokatuek uler dezaten. Beraz, supostu zehatz honetan, lekuko horrek adierazi ditzaken hitz zehatzak ezinbesteko garrantzia izan dezakete, nagusiki, zigor arloan.

Beraz, nahiz eta interpretazioaren eremu guztietan zehaztasuna ezinbesteko ukanbearra den, arlo juridiko-administratiboan oraindik eta garrantzi handiagoa izango du arlo konkretu honen ageriko errelebantziaren ondorioz.

#### **2.4.- Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean**

Orain arte esan dugunaren arabera, euskarak ez du normalizazio prozesua bururaino eramán, nahiz eta azken 30 urteotan lan ugari egin den helburua lortzeko. Horrek suposatzen du auzitegi nahiz epaitegietan gehienbat gaztelaniaz jardutea eta euskara, berriz, bigarren maila batean gelditzea.

Aurreko ataletan eleaniztasunaren ondorioak aztertu baditugu Euskal Herri mailan, atal honetan jorratuko dugu hizkuntza aniztasuna egoteak zein eragina duen hizkuntza gutxituengan Europar Batasunaren testuinguruan. Horretarako alde batetik, Peter Dirbergen eta bestetik, Jaione Arregiren bizipenak hartuko ditugu abiapuntutzat.

Europar Batasuna osatzen duten 15 kide estatuetan 40 hizkuntza daude gutxienez. Horietako batzuk oso ezagunak dira, hala nola, ingelesa, frantsesa, espainiera eta alemana. Baina badaude hain ezagunak ez diren beste batzuk, esate baterako, Eskandinavian hitz egiten den samia eta irlandar gaelikoa.

Planteatutako gaiaren inguruan, Peter Dirberg hasten da esaten, hein handi batean eleaniztasuna fenomeno positibo gisa ulertzen duela jendeak, bizitzarako aberasgarria bailitzan, konturatu gabe komunikazioa eten daitekeela hizlariak hizkuntza batean hitz egiten duenean eta entzuleak ez duenean ulertzen. Egoera horren aurrean konponbide bat proposatzen du Peterrek: hizlariak entzulearen hizkuntza ikastea, edota alderantziz. Noski, hizlariak bigarren hizkuntza hura ikasiko balu ere, ama hizkuntza ez denez berarentzat, ez luke erraztasun maila bera izango eta pertsonen arteko komunikazioa kaltetuta ikusiko litzateke.

Egoera praktikoa hura jorratzeaz gain, komunitateko lege sisteman eleaniztasuna badagoela ere adierazten du. Hamabi hizkuntzatan daude itunak. Praktikan, bere ustez, aukera egongo litzateke horien inguruko erabakiak baita erabaki proposamenak ere hizkuntza horietan guztietan hartzeko, baina iruditzen zaio oztopatu egingo lukeela erabakiak hartzeko prozeduren eraginkortasuna baita azkartasuna ere.

Peterrek eleaniztasunak planteatzen duen beste arazo bat ere aztertzen du; erabakietan jasotzen diren hitz abstraktuen interpretazioa. Hitz bat hamaika hizkuntzatan interpretatzeak ekar dezakeen arazoak alde batera utzita, esaten du interpretatzeko orduan hizkuntza desberdinen bertsioen artean oinarritzakoa zein den jakitea dela funtsezkoena. Justizia Auzitegiak problematika honen inguruan bi erabaki hartu ditu: batetik, bertsioen arteko desadostasunak ematen direnean,

interpretazioko beste elementuak hartu behar direla kontuan, hala nola, interpretazioaren objektu den xedapenaren helburua eta testuingurua; eta bestetik, hizkuntza bertsioren bat besteetatik aldenuz gero, beste hizkuntza bertsiokin modu bateratu batean interpretatu beharko dela. Erabaki hauek bere horretan onak badirudite ere, praktikan arazoak dakartzala baieztatzen du: interpretazio eleanitza izateko ezinbestekoa izango da interpretaria eleanitza izatea, alegia, komunitateko egintzak hamaika hizkuntzatan interpretatzeko gai izatea, ezinezkoa gertatzen denean.

Ekarpenarekin bukatzeko, eleaniztasunak prezio bat daukala ondorioztatzen du: batetik, literalki kostatu egiten duelako; eta bestetik, eleaniztasuna giza bizitzako beste baloreei kontrajarrita egon daitekeelako, esate baterako, erabateko komunikazioari eta segurtasun legalari.

Peter Dirbergerek eleaniztasuna fenomeno arazotsu eta negatibo gisa irudikatzen duen bitartean, Jaione Arregik adierazten du hizkuntza gutxituek bere lekua izan beharko zuketela Europar Batasunaren testuinguruan.

Lehenik eta behin, adierazten du batez ere hizkuntza ofizialak erabiltzen direla eta hizkuntza gutxituak ez daukatela estatus hori Europar Batasunaren testuinguruan. Era horretan, hizkuntza gutxituak sinbolo hutsak bilakatu eta komunikazio tresna izateari uzten diote: esate baterako, joera dago “egun on” esan ondoren gaztelaniara pasatzeko. Egoera horren aurrean, Jaioneri iruditzen zaio Parlamentuak hizkuntza gutxituetan hitz egitea baimendu beharko zuela, Parlamentua delako Europar Batasuneko erakunde demokratiko bakarra.

Horretaz gain, kontatzen du ere, euskararekiko duen sentsibilitateak hizkuntzaren normalizazio eza duela jatorri, alegia, gaztelaniak euskararekiko daukan nagusitasuna, eta jendeak ez duela ulertzen euskaraz hitz egiteko aukera izateari ematen zaion garrantzia erabat lotuta dagoela sentimenduekin. Era berean, baieztatzen du Europar Batasunaren politika izan dela batetik, hizkuntza aniztasuna bultzatzea eta bestetik, Estatu kideetako delegatuek haien ama-hizkuntza erabiltzeko aukera izatea, beraz, ez lukeela inongo arazorik suposatu beharko euskaraz egin ahal izatea.

Ondorioz, teorian, Europar Batasunak eleaniztasuna sustatu eta hizkuntza gutxituei bere lekua eman beharko lieke, baina praktikan, hizkuntza gutxituen ez jakintasunak arazoak dakartza interpretazioa egiterakoan; orduan, zein da soluziobidea? Hizkuntza aniztasuna sustatu eta hizkuntza gutxituei dagokien lekua aurreikusi beharko zaie edota soilik hizkuntza ofizialak erabili beharko dira arazo pragmatikoak saihesteko eta interpretazio prozesua errazteko?

## **2.5.- 2010eko urriaren 20ko 2010/64/UE Zuzentaraua**

Europar Batasuneko Parlamentuak eta Kontseiluak egin zuten zuzentarau hau ezinbesteko erreferentzia izango da interprete lanari dagokionez datozen urteetan. Bertan, prozesu penaletarako itzulpenak eskuratzeko eta interprete bat izateko eskubidea jasotzen baita europar mailan. Oinarrizko araudi honen bidez, prozesu penalean dauden alderdiei babes edo berme maila handiago bat eman nahi zaie, prozesu beraren berebiziko garrantzia eta errelebantzia dela medio.

Zuzentarau berak adierazten digun moduan, Europar Batasuneko edozein herrialdek norberak ulertzen duen hizkuntzan dokumentuak jaso ditzan bermatu eta zaindu beharko du, baita lekukotza edota deklarazio kasuetarako interprete bat aurkitu ere; gastu guztia estatu zehatz horren kontura. Ondorioz, oso pauso garrantzitsua da arlo juridikoari begira, baina baita, nagusiki, interprete lanari erreparatuz ere.

Dakigun moduan, zuzentarau bat denez gero, ezinbestekoa izango da estatu zehatzek araudi honen transposizioa egitea, modu zehatzago batean barne ordenamenduan eskubide hau arautuz. Nahiz eta berau oraindik ez duen gauzatu Espainiak, seguru aski espainiarra den edonork gaztelera ezagutzeko betebeharrak konstituzionala duenez gero (EK 3.1. artikulua), ez dio ia inolako eraginik egingo euskarari. Hau da, ezingo genuke aipaturiko zuzentaraan oinarriturik Frantziako prozesu penal batean euskaraz deklaratzeko galdatu, baizik eta gaztelera. Hala ere, hauek guztiak araudi europar horren garapena ikus aurretiko espekulazioak soilik lirateke. Hala ere, aipatu behar da modu azkarrean bada ere, euskarak baduela bere berme juridiko bat, besteak beste, Prozedura Zibilaren Legeko zenbait artikulutan edota Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean oinarritua.

Ondorioz, ezin ukatu oso zuzentarau garrantzitsu baten aurrean gaudenik bai arlo juridiko-administratiboan aldaketa nabarmenak suposatuko dituelako bai interpreteen lana modu egokian arautu eta kontsolidatuko delako (esaterako, zuzentaraan formazio zehatz bat galdatzen zaie).

## **3.- ONDORIOAK**

Bereiziki euskarak, Euskal Herri mailan, eta euskarak ez ezik beste hizkuntza gutxituek, Europar Batasunaren testuinguruan, interpretazioa egiteko orduan, pribilegio bat baino zama bat dira praktikan. Arrazoia sinplea da: oso zaila izaten da hizlaria, interpretaria eta entzuleak aldi berean ulertzea hizkuntza gutxitu bera beti. Egoera horrek hizkuntza ofizialak erabiltzera eta gutxituak bigarren maila batean uztera garamatza; denok ulertzeko gai garelako eta era honetan, interpretazio prozesuaren azkartasuna eta eraginkortasuna ez ditugulako oztopatzen.



Edozein kasutan, ezin dugu onartu hizkuntza gutxituak erabiltzeko lortu ditugun eskubideak zapuztea, eta horiek ez erabiltzea arazo pragmatikoak saihestu nahi direlako. Ondorioz, guk baina bereiziki interpretazio lanean jarduten dutenek, gogor egin behar dugu hizkuntza gutxituek euren lekua lortu dezaten.

Lan honekin atera nahiko genukeena guztiok gauzatzeko betebeharra daukagun gogoeta jardun bat da, gure hizkuntza propioaren nondik norakoa aztertu, erabaki eta bideratzeko. Interpretateen lana guztiz txalogarria da egungo egoeran, beraiek baitira hizkuntza bat eremu formalago batean bizirik mantentzen dutenak, errazagoa baita indar gehiago duten hizkuntzen menpe geratzeko joera.

Beraz, etorkizunean kontuan izan beharreko lanbidea dugu interprete eta itzultzaileena, europa mailan eman den zuzentarauak indar handia emango baitie lanbide hauei ez ezik, baita hizkuntzei ere. Etorkizunean kontu handiz jarraitu beharreko garapena izango da hau beraz, hizkuntza ezberdinen nondik norakoa ezarri dezakeen bidean baikaude guztiz murgildurik jada.